



834/2009 Ebazpena, maiatzaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, agindua ematen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko C.2 Lanbide taldeko (Administratzioko Teknikari Espezialistak) eta C.3 Lanbide Taldeko (Teknikari Espezialista Profesionalak) aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hain zuzen ere hutsik dauden lanpostuena eta ordezkapenena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiaren bidez (EHAA 198 zk, 2008ko urriaren 16koa), egokitu egin da aldi baterako pertsonal estatutarioa Enteko zerbitzu-erakundeetan sartzeko sistema arautzen duen 2004ko urtarrilaren 26ko Erabakia, 2006ko Lan Eskaintza Publikotik eratorritako aldi baterako kontratazio-zerrendak prestatzekoa dena.


Zerrenda berriak 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiak araututako irizpideen arabera ordenatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren abenduaren 16ko 1509/2008 ebazpenaren bidez, Osakidetza web orrian C Lanbide Taldeko (Administrari kategoria izan ezik) aldi baterako kontrataziorako behin-behineko zerrendak argitaratu ziren, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena. Halaber, Giza Baliabideetako zuzendariaren abenduaren 22ko 1528/2008 ebazpenaren bidez, Osakidetza web orrian Administraria kategoria aldi baterako kontrataziorako behin-behineko zerrendak argitaratu ziren.

Aipatutako aldi baterako zerrenden inguruko erreklamazioak aztertuta,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzea C.2 Lanbide Taldeko (Administratzioko Teknikari Espezialistak) eta C.3 Lanbide Taldeko (Teknikari Espezialista Profesionalak) aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, interesa duten izangaiek hilabeteko epea izango dute ebazpen hau argitaratu den egunetik hasita, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari gora jotzeko errekurtoa jartzeko.

 Osakidetza
Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatzaren 27a
14
A

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendaria